

la perfumería

2018KO UDABERRIA

de Mercadona

ZURE **looka**
UDABERRIAREKIN BAT



Cushion
MAKILLAJEA

HIRU TONU AUKERAN



AURKIBIDEA

04 ZURE AZAL EDER HORI...
Beste urtaro-aldaketa bat dator eta, berriz ere, azala ahulago dago; horregatik, behar bezala zaintzeko edertasun-errutina bat behar du. Ekin zeure planari, eta aurpegi ederra izango duzu goizean goizetik oheratzen zaren arte.

10 ZURE LOOKA, UDABERRIAREKIN BAT
Izugarri gustatuko zaizkizu fruta-usaineko lurrinak, twista emango diozu zure adatsari, eta, jakina, kolorez gainezka jarriko zaizkizu ezpainak, begiak eta azazkalak. Horra denboraldiaren hasiera.

18 ZURE EDERTASUN-KITA
Beti zeurekin eramango duzu: behar duzun guztia dauka, eta zure nortasuna islatzen du. Udaberriari aurpegia emateko lau edertasun-kit.

22 ETA IZAN ZEN ARGIA...
Argitu nabarmendu nahi dituzun aurpegiko guneak, eta eman distira metalikoa zure ezpainei. Argitasuna dario bolada honetako makillajeari. Proba ezazu Metallic Radiance bilduma berria, eta eman bestelako distira zure aurpegiari.

26 ERAKUTSI AZAZKALAK
Kolore guztiak daude sasoko, baita haien konbinazioak ere. Berrienak hautatu ditugu, ezpainetako barrarekin edo begi-itzalekin uztartzeko. Gora sormena!

30 ZEN UNEA
Noiznahi aurkituko duzu une egoki bat gelditu eta eguneroko bizimoduaren estresa alde batera uzteko. Lanean ordu luze eman ondoren, prestatu bainu bero bat, piztu kandela aromatiko batzuk, jarri musika ona eta mimatu zure azala. Hiru, bi, bat...: spa etxean daukazunez, ez dago aitzakiarik erlaxatu gabe bizitzeko.

Argitaratzailea: MERCADONA SA
Fuente del Jarro industrialdea
Ciudad de Liria kalea, 5. 46988 Paterna / Valentzia
Egilea: Ediciones ELCA
Inprimatzailea: Jiménez Godoy
Lege-gordailua: TO-0789-2008

Aldizkari honetan agertzen diren produktuak Mercadonaren eskaintza estandarrekoak dira. Leku-arazoak direla eta, baliteke noizbait produkturen bat ez aurkitzea. Arren, galdetu gure langileei.
Doako alea; debekatuta dago saltzea edo merkaturatzea.
© Aldizkariaren titularrak MERCADONA SA da. Eskubide guztiak erreserbatuta daude. Debeekatuta dago aldizkaria baimenik gabe erabiltzea, osorik zein partzialki, eta/edo erreproduzitzea, bai eta markak eta/edo logotipoak erabiltzea ere.

Azalean



Hau darama modeloak:
Eyeliner gela, bekainetako maskara, kolore anitzeko koloretea, 11 zenbakiko ezpainetako aran-koloreko barra krematsua, eta 803 zenbakiko erremolatxa-koloreko azazkal-esmaltea.





ZURE azala eder hori...

Beste urtaro-aldaketa bat dator eta, berriz ere, azala ahulago dago; horregatik, behar bezala zaintzeko edertasun-errutina bat behar du. Ekin zeure planari, eta aurpegi ederra izango duzu goizean goizetik oheratzen zaren arte.

Sufritu egiten du azalak egunean zehar; horregatik, ez da nahikoa garbitzea eta krema hidratatzailea ematea goizean eta gauean. Babestu azala eguzkitik; eman bitaminak; biziberritu arratsaldearen erdi aldera, eta aprobetxatu zure makillajeari ukitu batzuk emateko. Aurpegirako edertasun-errutinara bil ditzakezu pauso erraz horiek: zure azala hobeto sentituko da ohitura berri horiei esker, eta zure itxurak ere islatuko du aldaketa.

GOIZEAN

GARBITU, HIDRATATU ETA ARGITU ZURE AZALA

Gau osoan egiten du lan azalak; horregatik, garbitu egin behar da jaikitzean, zelula hilak eta lotan gaudela sortzen den koipe-mintza ezabatzeko. **Ur-gel garbigarriaren** formula (1) aktibo lasaigarritz eta C bitaminaz aberasturik



dagoenez, garbi eta garden egoteko behar duen guztia ematen dio aurpegiko azalari, eta krema hidratatzailea emateko prest uzten du. Ondoren, **Argitasun-serum C bitaminaduna** ematea komeni da (2). Estresak, lorik ezak, elikadura-aldaketak, emozioek... nekatu-itxura ematen diote aurpegiari, eta kolore hitsa azalari. Serum

honek, berriz, argitasun- eta bizitasun-plus bat emango dio azalari goiz-goizetik, egun osoan distiratsu egon dadin. Orain, hidratazio-faserako prest dago azala: **SPF 30 lifting-efektuko aurpegi-kremak** (3) aurre egiten dio irmotasun-galerari, hobetu egin du haren elastikotasuna eta, gainera, babestu egiten du eguzki-izpietatik.



1



2



3

Azalaren etsaiak?

EGUZKIA ETA KUTSADURA

Neguan baino eguzki-ordu gehiago izaten ditugu udaberrian, eta eguraldi ona aprobetxatuz, paseatzera eta aire zabalean ibiltzera ateratzen gara. Ez ahaztu egunero zure azala babesteaz; funtsezko urratsa izan behar du edertasun-errutina horrek urtaro epeletan ez ezik urte osoan, baita neguan ere. Izan ere, UV izpietatik babesten baduzu azala, zahartze goiztiarretik ere babesten duzu.



ASTEAN BEHIN

GARBIKETA
SAKONA

Garbitu eta araztu puntu beltzak **Peel-off Black Mask** maskarekin.

Charcoal deritzon aktiboak azala garbitzen laguntzen du, zikinkeriak eta ezpurutasunak kenduz, eta polita eta leuna uzten du. Astean behin bakarrik aplikatu T eremuan, hots, kopetan, sudurrean eta kokotsean, horietan pilatzen baita zikinkeria gehiena, azalak hor jariatzen duelako beste inon baino koipe gehiago. Aplikatu eta gero, utzi 15-20 minutuz, edo lehortu arte. Mintz bat sortuko da, eta poliki kendu behar duzu. Ondoren, ur hotzez edo aurpegi-toniko batez igurtzi, poroak ondo ixteko.



Gogoratu

- ✓ Maskara aplikatzeko, pintzel bat erabiltzea gomendatzen dizugu.
- ✓ Kontuz! Ez bota komuneko zulotik aurpegitik kendutako mintza.

Gomendioa

Emaitza hobea izan dadin, maskara aplikatu aurretik ur beroz edo lurrunez zabaldu poroak.



EGUERDIAN EDO ARRATSALDEKO LEHEN ORDUAN

BARETU ZURE AZALA

Bazkaltzeko orduan, edo geroxeago, egunean zehar metatutako nekea hasten gara sentitzen, eta azala tenk, lehor eta hits egoten da. Horra azala freskatzeko eta biziberritzeko une egokia. Langartu zure aurpegia **Olo-ura** ihintzarekin: freskura eta ongizatea, keinu bakar batekin. Eman berriro eguzki-babesa. Komeni da egunean zehar berriro ematea, azalean orbanik ager ez dadin gerora. Eman ukitu bat zure lookari **Cushion Blushion koloreteaz**: naturala, arina eta aplikatzeko erraza.



Mimatu zure EZPAINAK

Ezpainetako azala sentikorrenetako bat da; izan ere, guztiz fina da, eta gure odol-zirkulazioaren araberakoa izaten da haren pigmentu naturala. Hori dela eta, zaintza berezia behar dute ezpaineak. Lehortu eta zartatu ez daitezten, erabili maiz-maiz **Ezpain-esfoliatzailea**. Ezpaineak zartatuta edo deshidratatuta baldin badauzkazu, esfolia itzazu baltsamoa eman aurretik. Hartara, elikatu eta leheneratu egingo dituzu. Ondoren, hidratatu, karite-gurina eta ahuakate-olioa dituen **FPS15 ezpain-babesarekin**.



GAUEAN GARBITU, OSATU ETA ELIKATU

Etzera iristean, garbitu eta desmakillatu aurpegia, leunki, **Garbitzeko esne hidratatzailearekin** (1): kendu egiten ditu egunean zehar pilatutako makillaje- eta ezpurutasun-hondarrak, eta azala sakon garbitzen eta hidratatzen du, aktibo hidratatzailez aberastutako formulari esker; azkenik, lasaitu ere egiten du, eta ongizatea ematen dio. Gaueko edertasun-erri-tualaren hurrengo pausoa **Aurpegi-toniko hidratatzailea** (2) ematea duzu: garbitu eta freskatu egiten du, aktibo lasaigarriak, hidratatzaileak eta antioxidatzaileak ditu eta. Azala garbitu ondoren, oneratzeko eta elikatze-fasera jo behar

dugu: **Zimurren aurkako serumak** (3) trinkotu eta leundu egiten du azala, barrutik ekinez zahartzearen adierazleei.

Begi-inguruko Sisbelak (4) eta lepo eta **Bularrak-derako Sisbela krema trinkotzaile eta elikatzaileak** (5) tratamendu berariazkoa ematen diete aurpegiaren eta kontuan izan beharreko haren inguruko eremu batzuei. Izan ere, azalak ez du atsedenik hartzen, ezta gauz ere; hain zuzen ere, orduantxe egoten da harkorrena nutrienteentzat. Lotan zaudela egiten du lan **Sisbela krema indargarri eta birsortzaileak** (6), eta areagotu egiten du aurpegiaren lehenatze-prozesu naturala. Luxuzko tratamendua da krema hori zure azalarentzat, haren aktiboak direla eta. Egunez eta gauzez erabiltzea komeni da.

Egunez zein gauzez aplika daitezke garbitzeko esnea eta tonikoa.



1

2



5



6



7

Gogoratu

Aplikatu **Aurpegi-tonikoa desmakillatzeko** disko obalatu batez (7) ukitutxoak emanaz. Ez igurtzi; hartara, ez duzu narritadurarik eta gorriunerik izango.



LIP KISS *Balm*



*Kolorea eta hidratazioa
zure ezpainetarako*



ZURE *looka*

UDABERRIAREKIN BAT

Izugarri gustatuko zaizkizu fruta-usaineko lurrinak, *twista* emango diozu zure adatsari, eta, jakina, kolorez gainezka jarriko zaizkizu ezpainak, begiak eta azazkalak.

Horra denboraldiaren hasiera.

LURRIN

fruta-usainekoak

Udaberri honetarako usain atsegingarrienak

MONOGOTAS

1 Masusta

Liluratu egingo zaituzte fruta urrintsu horren ukituek. Ezin tentagarriagoa!



MONOGOTAS

2 Kokoa

Proposamen guztiz originala, eta lurrik exotikoena.



MONOGOTAS

MONOGOTAS

3 Banilla

Lurrintzeko modu gozo bat.

4 Sagarra

Egunaren edozein unetarako osagarririk egokiena.



HEMEN DA BIKINI-OPERAZIOA...

Seguru prest dituzula jada hondartzarako arropa eta poltsa. Baina gorputza ere prest al duzu? Urte osoan erabili behar duzu zelulitisaren aurkakoa, haren efektuak nabarmentzeko funtsezkoa baita jarraitutasuna..., baita dieta orekatua eta ariketa fisikoa ere, noski.

Indartu pilatutako koipearen kontrako borroka, **Vanity Series zelulitisaren aurkako olio lehordun murriztailearekin**. Haren bidez, eguneko 24 orduetan egin dezakezu zelulitisaren kontra.

Funtzionamendu erraza du: zenbat eta gehiago mugitu, orduan eta gehiago erreko duzu. *Provislim multiaktiboa* deritzon konplexuak etengabe jariatzen ditu bere aktiboak, eta areagotu egiten du produktuaren eraginkortasuna jarduera biziko uneetan.

Hona hemen beste zenbait aliaturen izenak ere, aurtengo bikini-operazioa hain gogorra gerta ez dakizun: **Celuvit Detox kapsulak, lagungarri bikainak soberan dituzun kilo horiek kentzeko eta azalaren itxura hobetzeko.**

Eta **Lipo Reductor anpoilak**, mitez eginak, lipidoak degradatzen lagun diezazuten.



Gogoratu

Aplikatu kirola egitera edo paseatzera zoazenean: areagotu egingo duzu produktuaren eragina.



EZ ILE NARRATSIK, EZ EGUN PETRALIK

leak ez diezazula eguna zapuztu. Kirola egin edo kalera irten behar baduzu baina adatsa ez badago oso dotore, ipini ilean "egun petral" hori ezkutatzeko eta/edo ederrago emateko osagarriak. **Ilerako osagarriak:** zenbait modelo aukeran.





LIP KISS BALM

Gazteentzako balsamo dibertigarri eta original honek ezpainak zaindu eta hidratatu egingo dizkizu, eta fruta-aroma zoragarriak eta kolore-ukitu bat emango.

01 zenbakidun marrubi-koloreko Lip Kiss Balm, eta **02 zenbakiduna, melokotoi-kolorekoa**



IGO TONUA

Beltzaran samar egoteko gogoa udaberrian ere izan ohi dugu.

Eguzki-hautsak (bi tonu, aukeran)



BEKAIN BIKAINAK

Apain-apainak, sarriak eta ederki marraztuak daude sasoiko. Apenas egin izan zaien kasurik hainbat eta hainbat urtez; duela gutxi, ordea, aurpegieraren adierazle nagusietako bat izatera iritsi da.

1 Bekainetako maskara / **2** Bekainetarako bikotea: bete & argitu / **3** Bekainetarako kita / **4** Bekainetarako arkatz automatikoa



07 zenbakidun begi-itzal marroi matea eta 08 zenbakidun perla-marroia.




la perfumería



XAKE-MATE

Begirada edertzeko, hona gure proposamena: bekain naturalak, baina ondo atonduak, diseinu erakargarrikoak. Eta *smudgy eyes* deritzenak. Izan ere, begi ketuko makillajetik begi orbandunetarako bilakaera egon da, eta itzal bidezko akabera ez-perfektu batek sakontasuna ematen dio begiradari.



ITXURAZKO BEREZKOTASUNA

Adatsa lotu gabe edo lotuta eraman, produktu jakin batzuk behar dituzu ilea tratatzeko, hain sasoiko dagoen itxura natural hori emateko.

Laka estradistirak orrazkera finkatzen lagunduko dizu; gainera, distira naturala izango du zure ileak, lakaren diamante-hautsari esker.

Laka estragogorrak, berriz, orrazkera finkatu eta bere lekuan edukitzen du, eta lagundu egiten du adatsa lotu gabe eta lau haizetara eramaten.

Ukitu aparta

Ingurune zehatz bat finkatzeko — kopeta-ilea, adibidez— edo solte geratzen diren iletxoak menderatzeko, lainoztatu laka pixka bat orrazian edo ile-eskuilan; ondoren, orraztu finkatu nahi duzun ingurua.




**Azala zaindu eta elikatu egiten du,
eta lehortasunetik eta kanpoko
erasoetatik babesten**



Esku zainduak, esku politak

deliplus



Beti zeurekin eramango duzu: behar duzun guztia dauka, eta zure nortasuna islatzen du. Udaberriari aurpegia emateko lau edertasun-kit.

ZURE EDERTASUN-KITA

BAI DOTORE!

- 1 Nezeserra (zenbait modelo eta tamaina aukeran)
- 2 Aloe verazko esku-krema hidratatzailea
- 3 Azazkalak tratatzeko bitamina-olioa
- 4 Laka estragogorra (bidaietarako tamaina)
- 5 Ezpainetako barra matea, 11 zk. / 6 Melodía
- 7 Eguzki-hautsak / 8 Azazkaletako lima / 9 Pintzel argitzailea / 10 Top silueta makilatxoak / 11 Brotxa



EMAKUME KIROLARIA

- 1 Ilerako kirol-osagarriak (zenbait modelo aukeran)
- 2 Babes gehigarriko desodorantea, espraian
- 3 FPS15 ezpainetako babesa, kirolerako
- 4 Woman Sportwater 9.60 Pure / 5 Kapsula multibitaminak / 6 PFS 50+ adinaren aurkako arpegiko Sisbela eguzki-krema koloreduna



URDINEZKO GIZONA

- 1 Esku-krema ultrahidratatzailea / 2 Aqua Marina bainurako gela / 3 Adinaren aurkako Vido seruma
- 4 Desafío Sport eau de toilette / 5 Begi-ingururako Vido roll-on-a / 6 24 orduko Vido aurpegi-krema hidratatzailea
- 7 Ginseng, erregina-jele eta C bitaminazko anpoilak
- 8 Gizonentzako babes gehigarriko bolazko desodorantea

NESKATOAK

- 1 Haurrentzako jelea-propolia
- 2 Prodigiosa kolonia
- 3 Soy Luna hortzetako eskuila elektrikoa
- 4 Tiratzeen kontrako ilerako eskuila
- 5 Haurrentzako pertsonaien irudiak dituzten nezeserrak (zenbait modelo eta tamaina aukeran)
- 6 Bi urtetik gorako haurrentzako Shimmer Shine hortzetako gela
- 7 Sei urtetik gorako haurrentzako Prodigiosa hortzetako gela / 8 Gorjuss haurrentzako nezeserra (zenbait modelo eta tamaina aukeran)



MUTIKOAK



- 1 FPS50+ haurrentzako eguzki-espraia
- 2 Spiderman hortzetako eskuila elektrikoa / 3 Sei urtetik gorako haurrentzako Batman hortzetako gela / 4 Bi urtetik gorako haurrentzako Pjmask hortzetako gela / 5 Superman eau de toilette
- 6 Haurrentzako pertsonaien irudiak dituzten nezeserrak (zenbait modelo eta tamaina aukeran)

AUSARDIA

Argia du protagonista nagusi **Metallic Radiance** ren lookak, eta izaera handiko emakumeentzat bakarrik da egokia. Strobing argitzaileak zenbait inguru azpimarratzen ditu —sudur-trenkada, masailen goiko alde, kopetaren Erdiko alde...—, eta itxura osasungarriagoa eta distiratsuagoa ematen dio azalari; hobea, alegia. Ezpainak ere distiratsu izango dituzu, 02 zenbakiko barra koral metaliko estranakar akaberari esker. Begiradari, berriz, argi neutroko ukitu leun bat emango diogu, 13 zenbakiko krema-itzalarekin, begiaren marra egiteko Eyeliner gelarekin eta 08 zenbakiko perla-marroi itzalarekin. Gogoan izan beste hauek ere: Volumen 4Dimensiones maskara, kolorete korala eta, azazkaletarako, 802 zenbakiko purpura-koloreko esmaltea.

ETA IZAN ZEN

argia...

Argitu nabarmendu nahi dituzun aurpegiko guneak, eta eman distira metalikoa zure ezpainei. Argitasuna dario bolada honetako makillajeari. Proba ezazu **Metallic Radiance** bilduma berria, eta eman bestelako distira zure aurpegiari.




DISTIRA BEREZIA

Hezea eta hidratatua egongo da aurpegia, **Metallic Radiance** bildumako *Strobing* argitzaileak nabarmentzen dituen argi-puntuak direla eta. Look horretan, akabera metalikoa eta satinatua dute ezpainenek, 01 zenbakiko barra more metalikoaren eraginagatik. Begiak makillatzeko, berriz, 13 zenbakiko itzal krema, Eyeliner gela eta Volumen 4Dimensiones maskara erabiliko ditugu. Masailetarako, azkenik, kolore anitzeko koloretea.

Zer da strobing?

Makillaje-joera horrek aurpegiaren zenbait inguru azpimarratzen ditu, eta itxura osasungarriagoa eta distiratsuagoa ematen dio azalari; hobe, alegia.

Contouringak argi-itxalak sortzen ditu aurpegia lirain-tzeko; *strobingak*, aldiz, argi-puntuei erreparatzen die batik bat, eta aurpegi argitsu eta naturala sortzen.



Argiztatu aurpegiaren zenbait eremu, eta eman zure azalari argitasun naturaleko ukitu bat.

Strobinga ERABILERA-GIDA

Metallic Radiance bildumako *Strobing* argitzailea da produkturik egokiena zure makillajeari azken ukitua emateko. Crema argitzailea da, testura leunekoa, eta erraz aplikatu daiteke hatz-mamiekin.

Eman argitasun handiagoa aurpegiko zenbait guneri; adibidez, sudur-trenkadari, kopetaren erdiko aldeari eta masailen goiko aldeari. Bolumen desberdinak sortuko dituzu

aurpegian, eta itxura hezea eta hidratatua izango du azalak. Bi koloretan aurkituko duzue Strobing Metallic Radiance argitzailea: 01 zenbakiko urrekoloreko argia, azal ertain edo beltzaranetarako egokia, eta 02 zenbakiko perla-kolorekoa, azal zurietarako egokia.



01 zenbakiko *Strobing* Metallic Radiance urrekoloreko argitzailea

02 zenbakiko *Strobing* Metallic Radiance perla-koloreko argitzailea






1. looka **AUSARDIA**

1 Strobing Metallic Radiance argitzailea. **2** Metallic Radiance ezpainenako barra, 02 zk., koralkolore metalikoa. **3** Eyeliner gela. **4** Begi-itzala, 13 zk., kreman. **5** Perla-marroi koloreko begi-itzala. **6** Volumen 4Dimensiones betile-maskara. **7** Koralkoloreko koloretea. **8** Purpura-koloreko esmaltea, 802 zk.



2. looka **DISTIRA BEREZIA**

1 Strobing Metallic Radiance argitzailea. **3** Begi-itzala, 13 zk., kreman. **4** Eyeliner gela. **6** Volumen 4Dimensiones betile-maskara. **9** Metallic Radiance ezpainenako barra, 01 zk., more-kolore metalikoa. **10** Kolore anitzeko koloretea.



Erakutsi azazkalak

Kolore guztiak daude sasoiko, baita haien konbinazioak ere. Berrienak hautatu ditugu, ezpainetako barrarekin edo begi-itzalekin uztartzeko. Gora sormena!

ZOOMA: Begiak, azazkalak eta ezpainak Sasoi honetan, kolorez bete nahiko dituzu. Hona hemen horretarako gakoak.

Pop Udaberria irribarrez jartzen dute arrosa-kolorearen tonu guztiak. Erabil itzazu tonu arrosakarak, eta eman pop ukitu bat zure lookari. **804 zenbakiko arrosa-koloreko pop esmaltea + 09 zenbakiko ezpainetako barra mate morea**



Trazu dotorea

Konbina itzazu betiko eyelinera eta esmalte bizi bat (erremolatxa-kolorekoa, adibidez). **803 zenbakiko erremolatxa-koloreko esmaltea + Eyeliner delineatzaile beltza + 13 zenbakiko krema-koloreko begi-itzala eta 08 zenbakiko perla-marroia.**



Bikote ederra

Makillaje-kontuetan, hau ikasiko duzu aurtengo udaberrian: irabazteko, arriskatu egin behar da. **802 zenbakiko azazkal-esmalte purpura + 16 zenbakiko begi-itzal perlakara urdin bizia eta 17 zenbakiko xanpain-berdea.**



BETI eskura }

1. Oinarri lisatzailea / 2. Kutikula-kentzekoa
3. Azazkal-moztekoa / 4. Azazkal-leungailua
5. Kutikulak ebakitzekoa
6. Laranjondo-ziriak



Sentsazio-

Azalaren zaintza



Aparra



Azalerako aromak



bainu bat

Azalerako babesa



deliplus



zen unea

Noiznahi aurkituko duzu une egoki bat gelditu eta eguneroko bizimoduaren estresa alde batera uzteko. Lanean ordu luze eman ondoren, prestatu bainu bero bat, piztu kandela aromatiko batzuk, jarri musika ona eta mimatu zure azala. Hiru, bi, bat...: spa etxean daukazunez, ez dago aitzakiarik erlaxatu gabe bizitzeko.

Begira zer onura dakarzkizuten esfoliazio eta hidratazio egokiek

Esfoliazioak zelula hilak ezabatzen ditu; hori dela eta, errazago xurgatzen du azalak aplikatzen zaion edozein tratamendu. Horixe duzu unerik egokiena, esfoliaziorako denbora behar baituzu; ondoren, berriz, ondo hidratatzea komeni da. Itsaso Hileko gatzak dituen gorputzeko esfoliatzaile mineralak leundu eta eraberritu egiten du azal lehor eta zartatua. Masaje bidez aplikatu, batez ere ukondo, belaun eta oinetan; ondoren, ur epelarekin kendu, eta gozatu esfoliatzailearen esne- eta ezti-usain atseginaz. Hori eta gero, hidratatu azala **Itsaso Beltzeko gatzak dituen gorputzerako gurina** erruz aplikatuz. Egunero erabil dezakezu; azala leun eta hidratatuta edukitzen lagunduko dizu.



Ukitu aparta

Bainatzen ari zarela aprobetxatuz, ileko ezpurutasunak kentzeko ere une egokia da: ilea bustia duzula, ohiko xanpuaz garbitu aurretik, aplikatu **ile-baltsamo esfoliatzailea**. Ezin hobea da ile koipetsu eta/edo zahidunetarako, haren mikropartikula esfoliatzaileek ezpurutasunak kentzen laguntzen baitute; osagai aktiboek, berriz, freskatu egiten dute ilea.



Zaindu zure azala

Garbitu eta zaindu zure azala **Bouquet** eta **Tropical bainurako gel** apardunekin. Azala leunki eta gozoki zaintzeko oso egokiak dira, eta haien lurrin atseginak erlaxazio-une bat ekarriko dizu. Aplikatu eskuan, eta zabaldu gorputz osoan, bustia duzula. Ondoren, urarekin garbitu, eta poliki lehortu azala.





Zaindu eskuak

la perfumería

Babestu itzazu eguzkitik **adinaren eta orbanen kontrako eskuetako krema** (1) emanda. Behar duten nutrizioa ematen diote zenbait osagaik (karitea eta glizerina, besteak beste); horrez gain, FPS 20 babes-iragazkiak ditu, ezinbestekoak eskuak eguzkitik babesteko eta zahartze goiztiarra prebenitzeko. Gogoan izan urte osoan izaten dituzula eskuak eguzkiaren eraginpean, edozein dela ere urtaroa. Kremak dituen aktiboen konbinazioak tonu bera ematen dio azal guztiari, eta orbanak agertzea eragozten.

Eskuetarako krema nutritibo birsortzaileak (2), berriz, areagotu egingo du hidratazioa eta zure eskuen eta azazkalen zaintza, jojoba-olioz, karitez eta E bitaminaz aberastutako formulari esker. Kremaren nutrizio- eta eraberritze-ahalmena dela eta, ezin hobea da kutikulak tratatzeko; erabil ezazu gauez, maskara gisara, eta primerako manikura lortuko duzu.

Aloe verazko esku-krema hidratatzailearen (3) aktibo hidratatzaile, birsortzaile eta lasaigarriek leundu egiten dute azala, eta berezko elastikotasuna eta hidratazioa itzultzen diote.

Soluziorik badagoen zure esku lehortu eta hondatu horietarako? Bai, noski! Hidratazio-ahalmen handiko krema bat, azala elikatzen, leheneratzen eta babesten duena: **Esku-krema ultrahidratatzailea** (4). Nahikoa da kantitate txiki bat ematea azala elikatzeke eta leuntzeko; segituan sentituko zara hobeto. Berehala xurgatzen du azalak, koipe-sentsaziorik utzi gabe.



Izpiliku, arrosa eta ur termalezko **Apain-mahaiko Suave Perfume xaboiak**, naturalak eta landare-jatorrikoak, aberatsak substantzia emoliente hidratatzailetan.





Areagotu zure argitasuna





ARAZTASUNA, MATERIA ETA SENTSUALITATEA
IKIRU HOMME & FEMME